

Burgos-ko kartzelan zeuden ETA-ko iraultzaile eskualdun haiek, eriotzaren zai egon sirenean, es ziren lo egon. Egun eta bereziki ordu larri haietan, lanean egon ziren, eta gaur gure eskuetara datorrigu haiek idatzitako dokumentu ederra. Uste dugu interesgarria litzakela ABERRI-EGUN nonetan, Euskadiren etorkisunaz haien pentsa moldea jakitea, eta karta luze hortatik zati interesgarrienak hartu ditugu.

Puntu ideologikoak besterik es dira, eta jakina, behar bada aspergarriak eta luzeak izanen dire. Ala ere, argi bat izan nahi dute eta ez bestaldera. Nahiz hemen gauden guziok ados ez izan hemen azalduko ditugun gauz guziekin, uste dugu, berriro, argi bat izanen dela, gure burruka gidatzeko.

Eta besterik gabe, zuzen-zuzena puntu baten aipatzera noa.

"Aitzinetik onhartua kontradizione hau: nazione-liberatzea eta sozial libera-tzea. Ontzat emandako akordioetan hau erraten da: "Klase-kontzientzia izaitzea ez da aski; eta nazione-kontzientzia izaitzea ere ez. Hain zuzen, klase-kontzientzia naziotiarra behar da izan.

Dударik gabe, gezurrezko bikuntasun hori haustea izan zen pausurik handiena: alegia, nazione-liberatzea eta sozial-liberatzea bi gauza desberdin gisa hartzea. Horretxek freinatu zuen urte askotan gure harriaren borroka. Argi-eta-garbi utzi zen nan, ez dela aitzinetik nazione-liberamendu bat, eta gero aberriaren barruan sozial-liberamendu bat; baizik-eta biak direla borroka bakar bat, bilakaera bakar baten parte, borroka orretan ez bait du parte hartzen alegiazko eskualdun abstrak-to batek, klase bati lotua dagoen eskualdun konkretoak baizik. Hastapenetik bere-tik, beraz, klase-intres bereziak daramatzi berarekin borrokan parte hatzen duenak; alegia, naziotar klase-kontzientzia baten bitartez borrokatzen da.

Abertzaletasun Iraultzailea mugatzerakoan, baita ondorioak ateratzen hastean, garbi agertu zen gure borroka ez dela abstraktoki "askatasun"aren aldeko borroka bat, "nazione-askatasun"aren alde borroka bat baizik; eta hau gotorrago da ber-tzea baino, ezen barnean ba du klase-lami bat bigarrenak, eta lehenengoak ez. Han onhartu genuen definizioeak, beraz; klase-borrokaren ideia barnean du. Hitz batez: kakoa ez da "eskualdunak espainolen eta frantsesen kontra"; baizik-eta bertze hau: "zapaldutako eskual klaseak, zein bere mailan, eta kulturaren aldetik zapatuak, oligarkiaren kontra". Bertze modu batera erraiteko: "eskual herria oli-garkiaren boterea (bai ekonomikoa, bai politikoa, bai kulturala); eta ez Erresuma Libro soil bat bakarrik. Eta gero, hartatik aitzina, bigarren aldi batean, eskual langileen klaseak sozialismoa eraikitzea.

Eta horretara nazione-liberatzea eta sozial-liberatzearen arteko kontradizio-neak nautsi ginuen; eta gure pratika iraultzaileak gotortu bertzerik ez du egin nausketa hori. Aurrenik "askatasuna eta euskeratzea" jartzea, klase-borrokaz anartzuz (edo borroka hori ukatuz) gezurrezko bikuntasun horri atxikitzea da; eta hau oso kaltegarri da, eta batera ere lehenago onhartutako deliberoak traditzea eta hondatzea da.

ETA sozialista organizazioe bat da. ETA ez da abertzale fronte edo elkarte bat.

Batere mugaketarik gabe finkatu zan behin ETA zer den; eta sozialista organi-zazioe bat dela aitortu zen. Ez dago dudarik ere sozialismo-motari dagokionez: ez humanista, ez erreformista, ez norrelakorik deus ere; baizik eta marxista-leninista.

Organizazioe gisa modu horretara ETA finkaturik gelditzean, baztertua zen ETA abertzale-frontearen ideia.

Batzuek bat egiten dituste marxismo-leninismoa eta espainatarkeria. Unak ez du funtsik. Baina marxista-leninista batzu espainiazale dire.

Eskual Langileria da Eskual Iraultza zuzendu behar duen klasea, denetan iraultzaileena delako". Onhartu ginuen aspaldi. Klaserik iraultzaileena da, zeren-eta bere buruan biltzen bait ditu sistemaren kontradizione guziak, eta analik eta gorenik. Ekonomika-zapalketa basa batean menperaturik (eta munetatik ez da libra-tuko klaserik gabeko soziedade baten bidez baizik), kulturaren aldetik eta poli-tikarenetik dago zapalduta: baita nazione-aldeketik ere zapatua. Euskal-Herriaren parte delako.

2

Sozialismoaren aldeko borrokak, horretara, abertzale liberamenduren itxura hartzen du lenen aldi batez; eta hurrengatik, gainerako klase herrikoiekin egin behar du bat, oligarkiaren botereak (politikoa, ekonomikoa eta kulturakoa) osoki ez-deustatsekotan.

Hunek, egungo egoeran, Eskual Erresuma Askatu bat eraikitzaera darana, eta hurretan herri-demokrazia bat muntatzaera. Hau da: eskual langileria eta nazio-burgesia Nazio-Frente batean elkarturik, iraultza herrikoa egiten dute elkarrekin. Iraultzaren lehen aldi hunak sozialismo gintzarako zimenduak ematen ditu; eta langileriak zuzendu behar du borroka, azaldu dugunez langileria baita klaseetan zapatuena eta esplotatuena; eta, hortaz iraultzaileena ere bai. Bertze modu batera: xederik iraultzaileenak dituena, sistemagabiamenduetan bildu-ezinezkoak hain zuzen (naziotiar burgesiarenak, aldiz, sistema-erreforma batzuen bidez biltzen anal dira zorbait mamentutan).

Pratikarakoan iraultzaren zuzenketa hori obratzeko, langileriak talde aintzindari bat behar du buru, organiza dezan; borrokara behar emana dagoen abanguardia bat, eta hurren borroka iskilurik haundiena marxismo-leninismoa izaita. Horretara joan behar du ETA-k, eta aintzindaritzaren hori bilakatzaera ari da ETA aspaldi hurren. ETA-ren borrokakizuna Euskadi-ko langileria borroka izanen da.

ETA-ren borrokabidearen gabiamendu hauek oro, eta herri guziarenak, eta areago langile-klasearenak, ezin zen bere horretan gelditu, ondorioz garreatu gabe, eta eskualdun eskuinetan erantzunik eman gabe. Hunek, urte luzetan borroka abertzalean nagusi, galdua ikusi du bere burua.

ETA-ren borrokaren haunditzearen aintzinean hurren ez da sorhaio gelditu. Herriak begi onez ikusten du borroka hori, masa-borroka hedatu egin da eta gorago joan, gero eta garbiago ageri da langileriak borrokaren zuzendaritza hartzean anal duela; eta ETA-ren bilakaerak, bai teoriarik bai ekintzan, Eskualdun Langile-en Partidua bilaka daitekeala ikusten da, Eskual Abertzale Frontean langileriarik zuzendaritza segurtatuz baita gero Eskual Iraultzan eta sozialismogintzan. Hurren guziaren aintzinean hurren ez da axolagabe gelditu.

Euskadin egun, funtsean, klase-borrokak hau emaiten du: alde batetik eskual klase herrikoiak daude, eta bertzetik frantses eta espainatar oligarkiak. Hurretan oso nabarmen eskual jatorrizko jaun asko, gure herriaren zan paketaren egiazko eta goreneko erredunak. Etzaigoa horretan, oligarkiak bere zanpaketa obratzeko (obra anal izateko ere erraiten anal da) kulturaren aldetik zanpatzen du eskual herria, nazio-gisa zanpatzen du. Oligarkiak ezin hertzikiago eramaiten du zanpaketa hori. Zanpaketa horren kondaira eta zanpaketaaren ohartzeak, gauza bat dekarte: eskual klase herrikoien eta oligarkiaren arteko etzaigoak nazio eta kultura izakera harrerazten du; hainbertzetaraino hau non Erresuma Libro eta Nagusi baten bidez ezin baita daiteke konpon kontradizio ezin larriago hori. Nazio Askatasunaren itxura hartzeak, beraz, ez du adierazten klase-borroka ez dela benetako klase borroka bat. Ezdu adierazten, ere berean, klase-borroka gero asiko dela egiazki, nazio-askatasuna iritzi ondoren. Ez, Nazio-askatasunerako borroka klase-borroka da: gure kasoan, eskual klase herriko guzien burruka da, espainatar eta frantses oligarkien aurka hain zuzen, hurren boterea desegin arte, eta Eskual Erresuma Askatu bat izan arte, hurren demokrazia herriko baten moldea emanez.

Azal dezagun hau xehekiago.

Gure borrokaren nazio-izakerak, diogu guk, ezin dizaiguke neholaz ere ahanterazi behar bere klase-borrokaren funtsa. Ezin da gure borroka bere klase-bonetik berezte. Ez dago Eskual Herriaren burruka abstraktorik, eta klase desberdinez osatua anantziz. Klase hurren izaita ahanzte ezina da.

Gure burrukari bere klaseko populuen kutsua kentzen zaionean, orduan erraiten anal da Espainia eta Frantzia-ren kontra ari garela; hau da, burruka ez dela gertatzen klaseen mailan, gisa denez, nazio-mailan baizik. Bi nazio-komunitate horrela etsaitu nahi izaita (osatzen dituzten klaseen gainetik, beraz) burges basakeria bat da eta munstrokeria hutsa. Zapaltzaile den oligarkiaren kontrako gatazkan, espainatar herriaren borrokakide da, eta ez etsai. Eskual Herria ez da borrokan ari frantses herriaren kontra, frantses oligarkiaren kontra baizik. Eskual Herria ez da borrokan ari espainatar herriaren kontra, espainatar oligarkiaren kontra baizik. Eskual Herria borrokakide da, hain zuzen, mundu guziko